BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5940

AGINDUA, 2012ko abenduaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskararen Gaitasun Agirirako (EGA) Azterketa Batzorde Ofizialaren kide batzuk berriro izendatu eta beste bat lehenengo aldiz izendatzen dituena.

1982ko irailaren 20ko Aginduak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) arautzen du. Euskararen Gaitasun Agirirako Azterketa Batzorde Ofizialeko kideak Hezkuntza Sailak izendatuko dituela adierazten da bertako 36. artikuluan. Artikulu horrek Batzorde horretarako izendapen horiek berritzea ere ahalbidetzen du.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Honako jaun-andre hauek Euskararen Gaitasun Agirirako (EGA) Azterketa Batzorde Ofizialeko kide berriro izendatzea:

Aurkenerena Barandiaran, Joseba.
Balanzategi Azkoaga, Edurne.
Barbero Garcia, Yolanda.
Garagarza Azcorbe, Agustin.
Gaztañazpi Zaldua, Ibon.
Ibarrondo Rodriguez, Susana.
Yarto Mendinueta, Maria Lourdes.

2. artikulua.– Honako jaun hau Euskararen Gaitasun Agirirako (EGA) Azterketa Batzorde Ofizialeko kide izendatzea:

Zarate Gorostiola, Gorka.

3. artikulua.– Izendapenek 2014ko abenduaren 31ra arte izango dute balioa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 10a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.